

## EDITH STEIN

Breslau dugu emakume jakintsu onen sorterri, antxe baitzan jaió 1891'an. Judu ziran bere aurretikoak, baiña Edith Stein laster jaregingo odol-ondore astun ortatik. Izatez argi ta zur dan ezkeró, oso jakintzale agertzen zaigu gazte-gaztetatik; pilosopi-ikasketak lilluratu dute osan; ura besterik ez du opa bere go-goak. Eta laster Breslau uzten du, ta Gottingen urira aldatu, an Husserl jakintzale ospatsuaren ikaskizunak

artzeko: onen ikasle begiko ta laguntzaille egiten da ille gutxi barruan. Garai artan, ta lenago, siñisgabetzat jotzen du Edith'ek bere burua; baiña Egi-billa dabil arduratsu, ta leia orrek gero ta geiago urreratzen du Jainkoagana.

*Edith, siñestun.* Adiskide batuenera joan da, ta gabaz pamiliko li burutegian geratu da bakarrik. Liburu hat eskuratzen du ustekabean: «Santa Teresaren Bizitza», berberak idatzita. Irakurtaldia amaitu duneko, egun berriaren argia sartzen da leio erdi-irikitik. Edith'en animan ere argia sortu da nunbait: «Au dut egia», dio kolkorako. Stein jakintzalesk Jainkoa aurkitu.

Aste batzuk geroago, ama laztanari naigabe aundia ematen dion arren, Edith'ek bataioa artzen du. Ta aurretantzean, zerbaiten sena dute bere irakatsi-arlo ta ardura guztiak. Aren gogo zabal gartsuak Jaungoikoaren eskerrari erantzuten dio, emate oso ta bigunez. Bat-batez bakar-zale bihurtu da, ta lekaiume edo monja izan nai du; munduan irauñ bear dula esaten diote, argontzi gainean argia jarrí ta etxe osoa dizdiztu bear dula. Edith' aien esanera dator. Baiña, 1933'an, nazitarrak juduai irakastea galazo diotenenan, Edith'ek uste du iritxia dala berarentzako ordua, ta karmeldar egiten da.

*Edith, karmeldar.* Kolonia'ko karmeldar mojetxoan etxeko ateak zabal-zabal egin dira, ta Husserl jakintzalearen ikasle argia bertatik igaro ondoren, betiko itxi berrien berriz. Ixil ta umil barnean datza Stein jakituna; aren lekuan, karmeldar apal bat daukagu, Aizpa Benedite, gurutz-maitale; eztu nai beste jakituririk, Kristo baizik, eta au, gurutzcan josia.

Ala ere, nagusiak aginduta, bere jakintza-arloari ekingo dio Benedite Aizpak. Husserl'ek esan zun: «Eleiazak ez du, nere ustez. Stein añaño neoeskolastikorik». Burni-sare ostean, aren ikasleak laucan diardu, aro erdiko jakituri-giarra oraingoaz bildu ta atondu naiean.

Komentu-ormaz kanpotik, juduen aurkako erasoaldia gero ta latzago.

*Edith, martiri.* Egun batean, beste aizpakin batera koruan dagola, Gestapo'koak dijoaz aren billa. Amar minutu bakarrik eskeintzen dizkiote bakartegitik irtetako. Argi ta kezka gabe, Edith'ek bere aizpak agurtzen ditu, ta giza-biltze-zelaietako neke-bidea artzen.

Oratu zioten ezkeró, oso gutxi dakigu aretaz. Austchwitz, zoritxarreko milloi askorentzat azken-unea; emen izen-zerrendetan datorrena dugu aren azkenengo berria ere: «44.074' garrena, Edith Terese Edbigis Stein, Breslau'n, 1891'ko urrillaren 12'an jaioa, Echl'ik onera eldua: 1943'ko dagonillaren 9'n illa».

Edith'ek, Kristo'ren opagaiz batera bere erri alde bizitza eskeiñi zuna, Austchwitz'eko gas-geletan oso

### SINISTEA

«Guztiok sinisten dogu, ta iñok be ez dogu sinisten», esan eustan bein neure mutill laguu batek.

Auxe da egia! Sinisten dogu, ta ez dogu. Egiazko sinistea ba-geunka, ez geunskio iñori kalterik egingo. Dogun baiño maiteago izango genduke Jainkoa, ta baita geide edo urko-laguna be.

Alkar maite ba'geudu, mundua zeriontsuago izango litzake, butak besteari geiago lagunduko geunskio-ta.

Alkarran algentzak askoren burnauste ta samintasanak arindu egingo leukez. Baiña burakolkari ta arrokeriz itsututa dagoz kistar askoren gogo-zentzunak, eta eurenak bakarrik dala mundua, uste izaten dabe.

Siniste oso ba'geudu, ez genduke iñor salatuko, ez besteren gaitzak edo kalteak pozuko. Ez genduke iñorgaitik eragongo, ez geidearen kalteko guzurrik asunuko. Baiña goizean sinistetan agertzen jarata atsaldean siniste bako. Egun batean on eta urrengoan donga.

Ikasi daigun kistar osoak izaten, eta Jainkoak ez dansku ukatuko sinisterik; eta sinistreak emongo dansku itzarokiotza, ta itzarokintzak goi-maitasuna, geure burua lez geidea maitatzeko.

Geidea (projimua) maite daunak Jainkoa be maite-maite izaten dau, ta alkar-maitasun onek bakea dakar biotzetara.

*Aurrerai*

tu zun erre-oparia, utzia ta ixilik. Baiña Benedite Aizparen eriotzak Egiazaz itz dagigu, Stein jakintzalearen liburuak baiño askoz obeto.

O.